

100 metro Wallapopen



ARITZ GALARRAGA

Kaixo, Aritz izena dut, eta Wallapop aplikazioaren erabiltzaile naiz. Tira, ez agian terapia hartu behar izateraino, baina maiz samar erabiltzen dudala aitortzeko. Adikzio bat baitut: liburuzalea naiz. Liburutegiak maite ditut, noski. Liburuak erosteak igotzen dit glukosa, ordea. Egiten dut sarri liburu dendetan –VIP txartela eman zidaten auzokoa–. Badira, aldiz, eskuratzen zail diren liburuak. Eta, zer nahi duzue esatea, sarean zehar aurki daitezkeen atarrien erraztasuna alboratuta, nahiago izaten dut Wallapop bezalako aplikazio batek eskaintzen didan aukera, ez esateagatik abentura.

Modu horretan eskuratu baitut ez bat ez bi harribitxi: deskatalogatuta zegoen ale aurkiezinen bat, saltzaile espezializatuek bost aldiz garestiago saltzen zuten edizioen bat, ia berria izan arren dendetako prezioaren laurdenean oparitzen zuten nobedaderen bat. Eta badakit sekretu hau konfesatuta orain denok ero moduan Wallapopen bilatzen hasteko arriskua dagoela. Baina errealista izanik, nori interesatzen zaio negozio klase hau?

Aplikaziotik eskuratu dudana azken liburua izan da Ramon Saizarbitoriaren *100 metro*, lehen edizio bat, bi euro ziztrinean. Kontatuko dizuet nola. Kontaktua egin dut saltzailearekin, Jose izen faltsua erabilia. Ez nau harritu trukea egiteko aukeratu duen lekuak, Donostiako Konstituzio plaza. Gehiago orduak, goizeko zortzietan. Hantxe nago, puntual. Halako batean, atzean pauso hots lehorrak. Badaezpada, Aiuntamentua eskuin aldera utziz, Zamudioren terrazarantz zuzentzen ditut pausoak. “Para o te aso, cabrón”. Nire susmoak konfirmatzen dira metro pare bat atzetik tipo bat korrika ikusten dudanean. Orduan, hots berri bat dator soinuen ekilibrio haustera. Sabelean jasotzen dut espero nuen tiroa. Badakit hilda nagoela. Sei segundo. Denbora eman dit saltzaile ebaluatzeke. Bost izarrekin, noski. ●

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

GILLEN GARCIA: “HURRENGO GAUEZ GURE ATEA JOKO DUTE: STOP FAXISMOA”

PINTADA ARRAZISTAK ETA MATXISTAK EGIN DITUZTE DEBAN

Gillen Garcia Debako alkateari mezkita ixteko mehatxu egin diote, eta Open Arms ontzia eta mugimendu feminista jomugan hartu dituzte. *Feminazis al hoyo* (feminaziak zulora), *Guillen, cierra la mezquita. Primer aviso* (Gillen, itxi mezkita, lehen abisua) edo *Open Arms = negreros* gisako mezuak idatzi dituzte herriko hormetan. Musulmanei buruz zera esan du: “Haien kultura ezagutarazten ari dira eta bizilagun guztien artean integrazio egoki baterako bideak irekitzen ari dira”.

NOTICIAS DE GIPUZKOA, 2019/09/01

